

kolaborazioak

Ikuspuntu sozialeko plangintza eragin eta bermatuko du Kontseiluak, erakunde publikoei egitea eta gidatzea dagokien plangintza instituzionalaren ordeko izan gabe nola ere; alderantziz, bi aldetatik plangintzen erakunde publikoen eta indar sozialen arteko elkarrizketa eta elkarlanerako tresna bateragarriak eta biderkatzaileak izan behar dute

Euskalgintzaren eta euskal kulturagintzaren alorreko sail gutzietako erakunde eta elkartek egiten dituzten ekimen sozialek sortuak, bateratuz, koordinakunde nazionala, zabal eta irekia eratzeko ahalginek aspaldiko dira gure herrian.

1.— «Euskal Kultur Batzarea» (1976-77)
 Duela hogeita bat urte, Durangoko azokaren inguruneaz baliatuz, bilera egin zuten euskal kulturako hainbat taldek, UEUK deituta. Aztergaien arteko lehen puntua: «Euskal Kulturaren Batzarre Koordinatzaile baten beharra». Durangoko jesuiten etxean izan zen bilera, urriaren 31n.

Izan zuten oihartzunik gertakariak, «Elhuyar» eta «Jakín» aldizkariak beren itxaropena agertu zuten editorial banatan. «Euskal Erakunde Kultural asko sortu da azken hamar urte hauetan (...). Helburuetan batasuna izan arren, badugu euskaldunok bakoitza geure aldetik «bakarlanean» aritzeko joera, eta lehen aipatutako Erakundeekin ere, horrelako zerbitu gertatzen dela aitortu beharrean gara. (...) «Elkarlanean» eta elkar ondo koordinaturik lan egiteko premiak eraginik, bilera garrantzitsu bat antolatuta izan zen Durangon. Azken urriaren 31n, han bildu ginen Euskal Herri gutziko (Ipar eta Hegoaldeko, tamalez arabarrik ez bazen ere) Euskal Erakunde kultural gehientsuenok («Elhuyar», abendua 1976). «Pozgarria eta itxaropenzkoa iruditut ziztaigun Durangoko Liburu eta Diskoaren Azokaren egunetan egindako bilera. Euskal kultur indar asko bildu zen. Lehen urratsa, eta aurrera jotzeko asmoa eta erabakia. Euskal Kultur Batzarea sortu, behar dela uste

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua

Paulo AGIRREBALTATEGI • Idazlea

dugu, euskal kulturaren politika eta egitarau zehatz baten barnean eta bidetatik, kulturagintza bateratu bat eraman dezagun kulturagintza, talde, elkartek eta instituzio gutzietan. Oinharri eta baldintza zabal batzuren inguruan, guzti horik bilduko litzuke Euskal Kultur Batzarreak («Jakín», urtarrila-martxoa 1977: «Euskal Unibertsitatearen izarra» editoriallean).

Bilera hartako asmoa, Nafarroatik zetorren antzeko beste ekimenak jaso eta bideratu zuten.

2.— «Etxepare. Euskal Kultur Gestora Orokorra» (1997)

1977an barna hainbat bilera burutu ziren Iruñean, Altsasun eta Donostian, Nafarroako Ikastolen Elkarteak eraginda. «Etxepare» izena asmatu zen koordinakunde berriarentzat. «Guztiok dakizue bilera hau egitera bultzatu gaituen xedea: Euskal Kultur Gestora Orokor bat eraikitzea (...). Honelako Gestora bat, zeinaren motorra Euskal Herriko Kultur Erakunde guzietako osatuko baitute, hautsezina izanen da, manaezina eta kultur eta nortasun sortzaile handia» (sarrerak-hitzaldia). 4. bilerako aktak honela zioen erdaraz: «Un punto tratado fue, la necesidad de participación de todos los grupos u organizaciones culturales del país, para lo cual se propone que cada sector presente coordine a los diferentes grupos de su sector en base a dos criterios básicos».

Hainbat erakunde ibili zen bileretan, Euskaltzaindia tartereko. 3.eko aktan (1977ko abenduaren 10ekoan) irakur dezakegunez: Gipuzkoako eta Nafarroako Ikastolen federazioak, Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakunde, Idazleen Elkarte, UZEI, Jakín, EKT (Bilbo), Gordailu. Baina beste hainbat ere gonbidatu zegoen: Beste herrialdeetako Ikastolen Federazioak, UEU, UZEI, EKT, Siadeco, Elhuyar, Adarra, Gestora Distrito Universitario, Radio Popular Bilbao, Radio Popular Loyola, EGIN, «Deia», «Anaitasuna», «Zeruko Argia», etab.

Garai hartako garabehera sozial eta politikoko tarterko, bertan behera geratu zen nahikoa aurrera joandako asmoa. «Haizeak eraman duen proiektu bat duzu hau —zioen «Jakín» aldizkariak handik hiru urtera ekimenari buruz, etsipenez edo; baina merezi du aipamen bat: besterik ez bada, positibitate galduen historiako: Euskal Kulturaren Batzarrearen proiektua» (21. zenb., 1981, 190 or.).

3.— «EKB. Euskal Kulturaren Batzarrea» (1983)

Baina etsipenean geratu ezinik, urtebete geroago (1982) hasi ziren beste hainbat lagun, temati, asmo berari helduz. Eta 1983ko martxoaren 12an arduratu zuten EKB-Euskal Kulturaren Batzarrea jendaurrean, Bergarako UNEDEN, «Euskararen Normalkuntzaren Aldeko

Agiria» aldarrikatuz. «Euskalgintza eta euskal kulturagintzako sail ezberdinetan diharduten talde, elkartek eta erakunde herritarren koordinazioerako zerbitzu», definitu zuten EKBk bere burua. Eta zera zioen bere oinarri teoriko eta ekintzarako ildoak bilduz, argitaratu zuten «Euskararen Plangintzarako Oinarriak» izeneko dossierrean: «Erakunde irekia da EKB. Euskal kulturaren lanean eta eragintzan ari den edozein talde, elkartek eta erakunde herritar sar daiteke koordinaziozerbitzu horretara» («Jakín» 34, 1985, 15. or.). «Euskararen normalkuntzarako plangintza orokorra» izan du, hain zuzen ere, EKBk bere leitmotib nagusia, hasieratik.

Ordutik hona ezaguna da EKBren ahalgina, euskal kulturako sektore, talde, elkartek eta erakunde koordinakunde gorpuzteko bidean. Bere zerbitzu eta ekintza ugariaren artean, Bateginik ekintzaldia, EHI Erekim batera burutua (1998), sona handikoa izan zen. Bere azken aurkezpen-txostenean agertzen duenez, 15 erakunde eta elkartek daude koordinaturik EKBn, euskalgintzako hainbat sailtakoak: horien artean Nafarroako Oinarriak. Eta Iparreko Euskal Federazioerkin ere elkarlanerako lotura berezia eratua du.

«Euskal kulturaren batzarre» gutzit zabala izateko asmoa, 14 urteko historian barna motzegi gertatu dira

EKBren izena eta asmoa, eta eskas horren koordinakunde, euskararen plangintza orokorra aurrera bultzatzeko.

4.— Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua (1997)

Azken hogeitazero ahaletan eta zailtasunen ondoren dator, beraz, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluaren sorrera. «Euskararen Unibertsitatea» gorpuztu eta eratu joateko. Dagoeneko elkartuak diren 50 erakundeek indar sozial gutzit garrantzizkoa osatuko dute, erakunde publikoen eta gizarte eragile politikoen, ekonomiko, sozial eta kulturalen aurrean, eta plataforma sendoa eta zabal, euskararen normalkuntzarako plangintza orokorra aurrera bultzatzeko —«nagusia», «orokorra» ala «strategikoa» deitu horri, ez du kontu hadirik, ideia argi dagoenean—.

Ikuspuntu sozialeko plangintza eragin eta bermatuko du Kontseiluak, erakunde publikoei egitea eta gidatzea dagokien plangintza instituzionalaren ordeko izan gabe nola ere, alderantziz, bi aldetatik plangintzek erakunde publikoen eta indar sozialen arteko elkarrizketa eta elkarlanerako tresna bateragarriak eta biderkatzaileak izan behar dute.

Urrats bikaina da noski aurrera begira. Duela 20 urte «Jakín» aldizkariak idatzi zuten hura herritz amaituko ditut lerro hauek: «Pozgarria eta itxaropenzkoa iruditut ziztaigun Durangoko Liburu eta Diskoaren Azokaren egunetan egindako —egingo den— bilera». Ondo Euskal Kultur Batzarrea asmoa zen, ordea, artean: Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua, berriaz, errealtate finkoa da dagoeneko.

Xabier AMURIZA
Semaforo Gorria



Patata saltzailea

Donostian sinaturik, Eibarko istorio bat jaso dut eta dio: «Tontakeria eriztiko diotzu, baina gerta dakizue inoiz gairik ez izatea eta, honelakoak zeuk ere idazten dituzunean, oso irakurtaldi ederrak pasazten dizkidazuena, horra, bada, pasadizoa. Eibarren gertatua, orain dela berrogei urte edo gehiago».

Ezin dut kontatzeraz abiatu, sarrera honi iruzkin bat erantsi gabe. Batzuetan «gairik gabe» aurkitzen naizena egia da eta orduan, neuronei astindu bat emanda, edo estutu bat, hobeto esanda, beti sortzen da

zerbitu, orain arte behintzat. (Bide batez, «hobe esan, hobe esanda» idazten hasi zaizkigun idazleak ere. Noraino degeneratu behar du gure hizkuntzak?). Baina «tontakeria eriztiko diotzu kontatuko dizudanari», horixe ez! Eta ez da eder egiteagatik, edo Orozkoen esango luketenez, «aurder egitearren», arrazoi simple bategatik baizik. «Orain dela berrogei urte edo gehiago gertaturik», beste baten orimenean irau duenak derrigor eduki behar du zerbitu gogoangarria. «Gaur egun ere barregura ematen dit», dio geroago kronikariak.

Neuri ere barregura eman dit, baina ez balit ere, berdin jarriko nuen, herri baten edo herritar batzuen edo herritar baten orimenez gehiago gidatzen bainaiz, neure momentuko moreaz baino. Aspaldiko kontu bat entzuten baduzu, pentsa ezazu badela han zerbitu, norbaiten orimenean hala itsatsita gelditzea. Edo zerbitu hura bera da graziosoa, edo gogoratzen duenaren ezaugarri bat jotzen du, (norbait ezagutu nahi baduzu, begira ezazu zeri barre egiten dion), edo egoera bitxi bat adierazten du, gaurko honetan gertatzen denez.

Bazen Eibarko familia batean oso alaba despistatu bat. Inoiz ez zuten inor eza gutzen eta gutxiago gurasoen senitartekorik. Hamaika errieta egiten zioten, batean aitaren lehengusua, bestearen amaren izekoa aintzat hartu ez zituelako. «Ah, bai!», baina orduko beranduzen. Behin Pantxike deituko diogun neska honek lanetik etxera zetorren ahizpa bati esan zion: «Zatoz jantokira! Amaren senide bat dago bertan. Kopa eta gailetak ateratuz, baina nik ez dakit gehiago zer egin, ama ez dator eta». Pantxikeraren ahizpa badoa jantokira eta, atea irekitzen, hara non ikusten duen patata saltzailea, etxetz etxe hartan ibiltzen zena. Gizonak «ama

non dago» galdetuko zuten eta Pantxikek: «Sartu, sartu! Laster etorriko da».

Patata saltzaileak izango zuten zer pentsatua, ardo gozoa eta gailetak mahairatortzen hasi zitzaizkionean. «Ez, gaur ez dut behar... Ekar pare bat kilo... bost erreale?» eta honelakoak entzuten ohihurtik, bat batean jantokira, eta etxeko jakirik gordean bistara, osaba indiano bati lez. «Hauxe neska maitagarria!», pentsatuko zuten ipuina amaitu arte, baina jandakoak janda zeuden, eta auskalo bakoitxak zer pentsatu zuten, batez ere amak, etxeratu zenean. Eibarko herria amore altxor bat izan da beti. Anima zaitetze baidaltera.